



## Efemerideak. Legelari euskaldunaren ibileraren mugarriak

(Anniversary. Main moments of the use of the Basque Language  
in Law matters throughout History)

TREBIÑO BARRUETABEÑA, Imanol

Bibliotekaria, Zuzenbidean lizentziatua  
Eusko Jaurlaritzaren Biblioteka Nagusia  
Wellington-eko dukea 2  
01010 Vitoria-Gasteiz

BIBLID [1137-1951 (1997), 2; 75-78]

Efemerideena atal klasikoa da edozein motatako argitarapenetan eta Elerian ere ezin falta. Lerro hauen bitartez euskarazko tradizio juridikoa gogorarazi nahi diogu irakurleari; tradizio ezin umilago hori ezezaguna izan daiteke, hutsaren hurrengo izango da, baina egon badago eta betebeharrak pertsonal moduan hartu dugu azken urteetan horren bilaketa exhaustiboa eta bere antolaketa burutzea. Gure datu-basean<sup>1</sup> kontsultatu eta data zehatz batzuetan zer gertatu ote den azaltzen dizuegu, data konkretu batekoa izan arren testu bakoitza benetan bere garaiko erakuslea da.

XVI. eta XVII. mendeetan euskaraz jasotako testu juridikoen pasarteak neurri handi batean judizioetarako testigantzak izango dira, horietako asko balizko ezkontzengatik, izan ere sasoi hartan testigu barik esposatzea posible zen eta horren ondorioz, gero epaiketa burutu behar izaten zen benetan ezkontideak ote ziren

erabakitzeke. Sorginkeriak eta irainak ere baziren auzien ohiko iturburu. Lekukoek euskaraz izandako gertaerak izan ziren hizkeran kontatu eta halaxe jasotzen zuen auziaren idazkariak, garrantzitsua baitzen jakingarri guztiak ahalik eta ondoen jasotzea.

XVIII. menderako administrazio zibilak indarra hartzen du eta horregatik batez ere udaletxeetako euskarazko mezuak ugarituko zaizkigu. Frantzia eta Espainia arteko udaletxe mugakideen artean euskara erabiliko dute, gehienbat iparraldekoek, lurralde bakoitzaren hizkera ofiziala ez baitzen egokia mugaz ondokoekin komunikatzeko. Mende hau Iraultza Frantsesak sortutako testu andanarekin bukatuko da.

XIX. mendea istilutsua da hegoaldean. Bizkaiko korregidorearen hitzaldiak, ordenantza municipalak eta bandoak izango ditugu berritasun.

1. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak eta Eusko Ikaskuntzak laguntza eman zidaten datu base honen hasierarako eta eskerrak ematea gizalegezkoa da.

XX. mendearen hasieran lehiaketa publikoen oinarriak, elkarrekin pribatuen estatutu eta erregelamenduak eta lehengo testu doktrinalak topatu ahal izango ditugu. Autonomia Estatutua, boletín ofizial elebiduna eta ondorengo baraualdia ia batera etorriko dira gero.

## Aurten 400 urte:

**1597.-** Ultzama haraneko Iraizoz elizan baziren lehentasunak herriko jendearen artean; errespetatu ote ziren edo ez, hori zen 1597an burututako auzian erabaki behar zena. Prozesua, jakina, gaztelaraz burutzen da, baina testiguen esandakoari ahalik eta fidelen izateagatik, idazkariak lekuko hauek esan zuten bezalaxe jasotzen du, eta horrelaxe, elizako ohoreak banatzean herrian zein arau segitzen zen galdetzen diotenean Johannes de Iraizozek zera erantzuten du: “*Çarrac çarraynchu*”, hots, zaharrak zaharren antzera, eta berak bertako zaharrei kontu honetaz hauxe entzuten ziela: “*Jayncoa laudatu dela gure Errian espaytugu pendenciaric eliçaco gauzaetan baycica çarrenac çarraynchu Eta ofraçen baicara*”.<sup>2</sup>

1597an eta Nafarroan bertan ere, Sunbillan gertatutako lapurketa bat epaitzen da. Aurreko kasuan legez, lekukoek euskaraz esaten dutena bere horretan jasotzen dute. “Ustariz” gaitzizeneko Juan Iturbide ijito lapurtarrak objektu batzuez galdetzen diotenean, besteak beste, batzuez dio “*eguiã da orrelaco gauçabaçuec guc ecarri guinduçen*”, beste batzuez “*bai eguiãqui guc janguiduçen yrur ardiac eta urdea*”, eta beste batez “*arrayoçetic beyn çamaribat* (zaldi bat) *juanguinduen* (eramán genuen)”.<sup>3</sup>

## Aurten 300 urte:

**1697.-** Urte horretan Artajo hirixkan, Zangotza aldean, Bernado de Reta abade jaunak bere sakristaua zen Maria de Arraneguy andrea iraindu omen zuen kandelak piztera belu ailegatu zen eta.

Horrez gain, lehenago ere apaiz hori senarraren (eta andrearen) ohorea lokazten saiaturia omen zen. Itxura batean, jendaurrean honelaxe esan zion senarrari “*Joanix baituc eta izanentuc*”, alegia, “adarduna duk eta izanen duk”.<sup>4</sup>

## Aurten 200 urte:

**1797.-** Mila zazpiehun eta lauogeita hamabigarren urtean hasi ziren Lapurdiko Ahetze herrian bertako zinegotzien eztabaidak euskaraz ere jasotzen. Iraultza Frantsesaren aire berrietan tarteka frantsesez tarteka euskaraz jardun zuten 1798ra arte. Jean Etchepare izan zen 1792-1797 urteetan zehar aktak euskaraz jasotzen zituen idazkari munizipala. Honek guztira hogeita hamar akta jasoko ditu, baliozko eta balio gabetuen artean, administrazio munizipalean euskaraz dagoen aintzinako korpus inportanteena osatuz, gure pobrezia berran beti ere. 1797 urte hasieran amaitu egingo da uzta hau, Etcheparek ez du aktan herriko gorabehera gehiago jasoko, ez baita idazkaria izango. Lissarraguen jakituko dituzue bere tokia eta honek frantsesez erredaktatuko dituzue aktak berriak, bat salbu: 1798 urtearen azaroan Ahetzeko bildumaren euskarazko azkena eskribatuko du.<sup>5</sup> Omenaldi gisa, gure kalkuluen arabera 1797ko otsailaren bederatzian edo idatzitako bere azken akta hau eskaintzen dizuegu:

*Egun pluviosen 18an, Errepublikaren 5 garren ourtean, deliberatu dugu annayen arthean cartieretarie hirur deputatu nomaturic behar dugula helcar lagundu baldin helcarren artean hiltcen baiçacu assiendaric horaitic assiric St-Blase arteragnean helcar soustengatu etdo ydiçco etdo behico, confardian direnec, çoignac baitire anayatassunean sartuac, çoignac baitire deputatuçat eçagutuac Pierre Larralde, Plaçaco deputatua. Eta Larronta aldetic, Jn Fagonde, Aguerre, eta ouras aldetic Oger Ehuty, sieur d’Olhain. Eta içandute deputatuec podorea malhura arribatcen den pontutic hamabors egunen bourouco, es balin badu pagatcen bakhoitçac hirur libera pagatuco duen deputatuec biltcen abiatuac gueros pagatuco duen ser livera dobla, eta baldin pagamendu*

2. Testu honen aipamena hainbat iturritan topa daiteke: SARASOLA, Ibon: “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos”, *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*. XVII, 1983, 113-114 orriak; IRIGARAY, A.: “Varias líneas euskéricas en un manuscrito ulzamés del siglo XVI”, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*. Año XXVIII, cuaderno 4º, 1972, 575-577 orriak; IDOATE, Florencio: *La brujería en Navarra y sus documentos*, Pamplona, Institución Príncipe de Viana, 1978, orriak: 115-116 oharra. Data, hala ere, ez dago hain garbi, Sarasolak ematen du 1597ko data hori, Irigarayren testuan XVI. mendekoa dela baino ez da esaten eta Idoatek 1598koa dela dio. Jatorrizko testuaz jaso dugun bertsioa Sarasolarena da.
3. SARASOLA, Ibon: “Contribución al estudio y ...”, op. cit., 111-112 orriak; IDOATE, Florencio: *Rincones de la historia de Navarra*. Pamplona, Institución Príncipe de Viana, 1954. Jatorrizko testuaz jaso dugun bertsioa Sarasolarena da.
4. SATRUSTEGI, J.M.: “Contribución al fondo de textos antiguos vascos”, *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*. XII-XIII, 1978-79, 239-241 orriak.
5. YTURBIDE, P.: “Le registre basque de la commune d’Ahetze”, *Revue Internationale des Etudes Basques* 1908, 387-398 orriak; SAINT PIERRE, J.: “Le basque dans les actes publics”, *Gure Herria* 1951, Buruil-Urrieta, 289-292 orriak; RICA, Margarita: “Traduction in basque de termes politiques sous la révolution, anexe I: Délibérations de la municipalité d’Ahetze”, *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*. IX, 1975, 150-158 orriak. Yturbideren transkripzioa eskaintzen dugu.

*hunen arthean nihorc ere eguiten badu  
contrastaric etdo hauciric soustengatuco duten  
confardiaco anayec helcar deputatuetaric, eta  
içanen duten amanda doble, hura beretçat  
deputatuec çoignetan baitire anayatassunean  
sartuac: Pierre Larralde, 1 paire de bæufs;  
Chabaat Dufau, 1 paire de bæufs (...) (Ondoren  
segitzen du elkartean sartzen direnen izenak eta  
asegurutzen duten ganadua aipatzen, aurreko  
adibideetan bezala.)  
Eta signatcen dute signatcen daquiteneç, eta nic  
signatcen dut ezdaquiteneçat.  
Etchepare, Sre greffier.*

## Aurten 100 urte:

**1897.-** Diputazioak uztaileko antolatzen zuten Oartzunen nekazaritza eta ganaduen bilaldia, horretarako mugak eta juezen betebeharrak arautzeko "legeak" argitaratuz. Honela dio honen hasierak:

OYARZUN-GO  
Nekazaritza eta Ganaduen billadiko  
LEGEAK

*Oyarzungo Nekazaritza eta Ganaduen  
billadiya, datorren Uztaren 5-an idiki eta 7-an  
ichiko dana, sari-emate otsandikuarekiñ,  
egingo da ondoren agertzen diran muga oeki  
dagokiyola:  
1.ko Billaldira sartu nai duten ganadu, egazti  
eta lur-frutu guztiyak entregatu biarko dira  
astelen Uztaren 5-an, goizeko zortziyatik  
amabiyetara bitartean, Bilguma antolatzailliak  
siñalatzen duen lekuan. Juezak erabakiko  
dute, jendiak parte artu gabetanik, ala ganadu  
nola gañerako gauza ...<sup>6</sup>*

Uda berean, ganadu feria horrekin batera edo, euskal festak ere burutzekoak ziren Oartzunen. Apirilaren 22an "Diputazioaren Bilgumak" partehartzaileentzako (hau da, idazle, musikari eta bertsolarientzako) sariak baimendu zituen. Euskal-itx-jostaldien Batzarra eta Oiarzungo Udalaren artean argitaratuko dituzte, bere lana aurkeztu nahi zuenak baldintzak eta sariak garaiz ezagut zitzan. Zatitxo batek honela dio:

AZALDEA  
IZKRIBATZAILLÉEN INDAR-NEURTZEA

*Euskal-izkuntza-jakindeak zabaltzen sayatzen  
diran izkribatzalleai, lanbide onragarri onetan  
aurrera ere jarraitzeko limurkaritzat, emango  
zaizkate ondorengo sari oek.  
1.ko EUN PEZETAKO SARI BAT ETA  
BITEZARRA edo diploma, euskarazko itz-larri*

*eta Gipuzkoako izkeran lanik onena aurkezten  
duenari, agerturik gure Fuegoen Batzar edo  
Junta oroigarrien sustrai eta kondaira eta ayetan  
izaten ziran festena.<sup>7</sup>*

## Aurten 75 urte

**1922.-** Honaino suertatu zaizkigun testuak administratiboak eta judizialak izan ditugu. Ez da kasualitatea, errealitate judizialaren hausnarketa eta azalpena euskaraz plazaratuta ikusteko oraingo mendera arte itxoin behar dugu. Egilearen izenik agertu gabe, 1922ko Argiaren egutegian, "Jakingarriak" atalean "Legetan" tituluko zortzi orrialdetako artikulua topatzen dugu. Hainbat arlo jorratzen dira, baina batez ere soldadutzaz dihardu: zeintzuk joan behar duten, libratzeko arrazoiak eta. Hasieran Errejistro Zibilaren gaia lantzen duenez horko zatitxo bat erakusten dizuegu:

ERRIKO IDAZTEGIA EDO ERREJISTRO ZIBILA

*1870'garren urteko lege batek agintzen du  
jayoak, ezkontzak eta illak erriko epai-etxe edo  
juzgadian asentatzeko.  
¿Asentu oriek noiz egin bear dira?  
Jayotakoenak iru egun barru; orain urte betez  
onuntz errege agindu batek errietako juezai  
galazten die iru egun igarotako jayoen asenturik  
juez nagusiaren (juez de 1.<sup>a</sup> instancia) baimenik  
gabe ezartzea; eta juez onek baimen ori  
emango du isun edo multa aundi bat ordaindu  
eta expediente edo paper zikintze aundiaren  
ondoren.<sup>8</sup>*

## Aurten 50 urte:

**1947.-** Franquismoaren basamortuan lore gutxi ernatzen zen. Ez dugu guk, oraingoz behintzat, aipatzerik merezi duen urte horretako testurik ezagutzen. Urte bi itxaron beharko dugu Nazio Batuen Erakundeak Giza Eskubideen Aitorkizun Orokorra onar dezan eta hurrengo urtean, 1950an, Orixeek, barre ironikoaz suposatzen dugu, Guatemalako Euzko Gogoan, aurretiko inongo komentariarik gabe, bere euskarazko bertsioa argitara dezan:

*1949'garren Gabonilla'ren 10'garrenean,  
ERRI BATZARTUEN BATZARRE  
osoak ontzat artu zun eta zabaldu zun bezela.  
Zabalkunde Zaingoa.  
Erri Batzartuen Eralguntza.*

6. Archivo Municipal de Tolosa, B-7-1-14 erreferentzia.

7. *Euskal-Féstaç Oyarzun-en = Fiestas euskaras en Oyarzun.* Victoriano Iraola-ren Moldizkida, Donostia, 1897.

8. *Argia egutegia 1922, 28-35 orriak.*


Sarrera

*Gizadia bere esku, zuzenb  
izateko oiñarria, au baita, o  
gizadi orren atal danez, be  
eskubide eziñ-utziak ezagu*

## Aurten 25 urte:

**1972.-** Garai honetarako euska idatzizko medioetan nahiko are politikoak nonahi topa daitezke baina gehiago borondateak ag Bere apaltasunetik, 1972an fir 1973 urtean argitaratutako artik Villasante jaunak gabeziak igar juridiko tekniko baten beharra a geroko produkzio seriorako tres Sasoi hartan Villasantek berak garbi “derecho” berba bera ere Beharra sentiduta, talde lana, k sistematika ere proposatzen di ikusteak urteen poderioz bere a zirela.

*Gorago esan dudan bezala behar diren hitzok Derecho gehienbat. Beharbada lan Derechoaren beste eremu ahal izango da. Baina hori ikusiko du.*<sup>10</sup>



9. *Euzko Gogoa*. I'go urtea 1950gko Epailla-Yo argitaratu zen, n. 22, 1993-12-04an, separat sarrera sartu barik.

10. VILLASANTE, Luis: "Lege gizonek behar du"

TREBIÑO, I. Efemerideak. Legelari euskaldunaren ibileraren mugarriak. E